

Gaur egun, eko-jasangarriak diren produktuak eta zerbitzuak pil-pilean daudela argi dago eta, zer hobe hau elkartasunarekin eta maitasunarekin bat egitea baino? Asmo horrekin jaiotzen da Ezkoneko wedding planner proiektua, ezkontzen antolaketa integral pertsonalizatua eskeintzen duena. Proiektuaren lehentasun nagusia bezeroen zoriontasuna da, eta beraien bizitzako momenturik garrantzitsuenetarikoa bat ahaztezina izatea bilatzen dugu, bezeroak eta euren ingurukoak proiektuaren protagonistak bilakatuz. Maitaleak elkartu eta haien amodioa iraunkorra izatea nahi dugun moduan, gure planeta ere iraunkorra izatea nahi dugu. Ingurumena zaindu nahi dugu eta horregatik, ezkontza ekologikoak planifikatzen ditugu. Jasangarriak izatea da gure helburu nagusietako bat, hau da, naturarekiko errespetua duen bizitzeko modua sortu nahi dugu bikotean, denboran zehar iraungo duena. Ezkontza ospakizunek utziko duten arrasto bakarra bihotzean sortutako maitasun arrakala izan dadila nahi dugu: ez dugu beste motatako arrastorik utzi nahi, ez hondakinik ez jasangarriak ez diren beste praktikarik ere. Bigarren eskuko soineko eta apaingarriak bilatzen ditugu, gonbidapenak digitalki bidaltzen eta diseinatzen ditugu, eta hori gutxi balitz, inguru naturaletan aritzen gara, hiritar bizitzatik urrun.